



Kaixo, lagunok:

**JOSE LUIS** de la **MATA**ren heriotzaren/bizitzaren **XV. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekutzat dugu; sistematu zuten ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasunlanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko gonbidatu nahi zaituztegu-

2020-21ko ikasturte honetan zehar, [www.joseluisdelamata.com](http://www.joseluisdelamata.com) web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako **Izargain-DelaMata**ren Eskolan astero garatzen ari garen **www 13. Mintegiarekin**.

2021eko urteak, Covid-19aren pandemia egoera dela eta, gure antzerkiak, musikak eta ozpakizun-ekitaldia erabat eragotzi dizkigu. Baina Izargainen ezbeharrak **Bizitza** eta **Alternatiba** bihurtzeko zuen laguntza nahi dugu; beraz, **norberak idazlan bat idaztea** proposatu nahi dizuegu. Gaia: **“Nire harremana Jose Luis de la Matarekin XV. urteurrenean”**. Testu bakoitzaren luzera handiena bi foliokoa izango da, eta gehien iradokitzen dizuen apainketaz hornitu dezakezue.

Zuen testua [ulumago@hotmail.com](mailto:ulumago@hotmail.com) helbidera bidal ezazue, **otsailaren 20ra arte**, mesedez. Idazlan guztiak **txosten** batean bilduko ditugu eta gero, bidaliko dizkizuegu. Hori izango da **gure aurtengo elkargunea**.

Otsailaren 23ra arte, gure bihotzetan eta gure ibilbidean. Eutsi goiar!  
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso

DE LA MATAENEA  
2021eko otsailan